



Donostian, sinaduraren egunean

En San Sebastián, a fecha de la firma

BILDURIK

REUNIDOS

Alde batetik, David Feijoo Rogel, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuko Kudeatzailea, Q2000542G IFK duena eta helbidea ondorio hauetarako Donostiako Anoeta kaleko 18. zenbakian.

De una parte, D. David Feijoo Rogel, Gerente del Patronato Municipal de Deportes de San Sebastián (PMD, en adelante), con C.I.F. Q2000542G y con domicilio a estos efectos en calle Anoeta 18, San Sebastián.

Bestetik, Javier Mendiburu Gomez jauna, ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN (aurrerantzean, onuraduna) erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz (IFK: G20131728; helbidea: Paseo de las Aves 5, Donostia).

Por otra, D. Javier Mendiburu Gomez, Presidente, en nombre y representación de la entidad ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN (en adelante, la persona beneficiaria), con CIF G20131728 y con domicilio en Paseo de las Aves 5, San Sebastián.

ADIERAZTEN DUTE

EXPONEN

Kiroletako Udal Patronatuaren (aurrerantzean, KUP) funtsezko helburua da kirola garatzea udalerrian, kontuan izanda kirola pertsonen oinarritzko eskubidea dela, hezkuntza eta formazio aldetik, jolas aldetik, lehiaketa aldetik edota ikuskizun aldetik. Helburu hori lortzeko KUPari egotzi zaio, besteren artean, lehiaketa nahiz ikuskizun gisa egiten diren kirol jarduerak kudeatzea, sustatzea eta babestea, batez ere, udalerrientzat garrantzi eta interes handiko kirol eta gizarte ekimenak direnean.

Que constituye objetivo primordial del PMD el desarrollo del deporte en el municipio, partiendo de la consideración de que el deporte es un derecho fundamental de las personas ya sea en su vertiente educativa-formativa, ya en su faceta recreativa, en el aspecto competitivo o como espectáculo, atribuyéndose a tal objeto al PMD, entre otros, la gestión, promoción y apoyo de las actividades deportivas de competición tanto recreativas como de espectáculo, sobre todo aquellas de máxima importancia e interés deportivo y social para la ciudad.

Gainera, KUPek lanean dihardu, hiria kanpoan ezagutarazten duten kirol jarduerak finkatzeko edo sendotzeko, kirolari lotutako hiriaren irudia zabalduz eta turismoa eta hiriaren dinamizazio ekonomikoa sustatuz.

Que, además, el PMD está trabajando, en la consolidación de eventos deportivos que den a conocer la ciudad en el exterior dando una imagen de ciudad ligada al deporte, que supongan un fomento del turismo y una dinamización económica de la ciudad.

ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN bat dator errugbia sustatzeko eta kirol honi merezi duen lekua emateko lankidetzan aritzeko interesarekin, hirian zenbat pertsonak egiten duten kontuan hartuta. Errugbia sustatzera, toki-eremuan duen presentzia sendotzera eta kirol-jardueran nahiz parte-hartzaileen prestakuntzan eta integrazioan eragin positiboa sortzera bideratutako hainbat jarduera garatu nahi dituzte.

Que EL ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN comparte el interés de colaborar para fomentar la práctica del rugby y dotar a este deporte del espacio que merece, teniendo en cuenta la cantidad de personas que lo practican en la ciudad. Pretenden desarrollar una serie de actividades orientadas a promover el rugby, consolidar su presencia en el ámbito local y generar un impacto positivo tanto en la practica deportiva como en la formación y la integración de los participantes.

KUPeko 2024-2026 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan, jasotzen da "Atlético SSeko Rugby taldea" izeneko dirulaguntza lerroa, eta proiektu hau ildo horren barruan kokatzen da, eta dirulaguntza

Que en el Plan Estratégico de Subvenciones del PMD 2024-2026 se recoge la línea subvencional denominada "Sección de Rugby de Atlético SS" y este proyecto se enmarca dentro de esta línea,



honi dagokion Planaren 66 bis 2. fitxan zehaztutako helburu estrategiko eta espezifikoak lortzen laguntzen du. Hauek dira helburu horiek:

- **Helburu estrategikoak:** kirol-jarduerak sustatzea

- **Helburu espezifikoak:** Errugbia sustatu, tokiko eremuan duen presentzia sendotu eta eragin positiboa sortu, bai kirol-jardueran, bai parte-hartzaileen prestakuntzan eta integrazioan.

Azaldutakoa dela-eta, bi aldeek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, eta ondoko klausula hauek izango ditu arau

KLAUSULAK

1.- Dirulaguntzaren xedea

Dirulaguntzaren helburua da 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31era bitartean Atletico San Sebastián taldeak errugbian aritzeko behar dituen gastuei aurre egitea.

Zuzeneko dirulaguntza da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.a) artikuluan aurreikusitakoetako, egitasmoaren izaera dela eta eta diru xedapena KUPeko 2026 aurrekontuan izenduna delako.

Dirulaguntza honen baitan aurrera eramango diren jarduerak honakoak dira:

- Errugbi klubentzako entrenamenduak
- Errugbian trebatzeko jarduerak ikastolekin eta ikastetxeekin
- Unibertsitateekin errugbian trebatzeko jarduerak
- EHUko Unibertsitate Txapelketa.
- Eskola-kiroleko jarduerak.
- Federazioen entrenamenduak

Atletico San Sebastian klubak errugbi zelaia lagako du aipatutako ekintzak garatzeko ordutegi hauetan:

- Astelehenetan: 17:00etatik 19:00etara.
- Asteazkenetan: 17:00etatik 19:00etara.
- Ostiraletan: 20:00etatik 21:30era

contribuyendo al logro de los objetivos estratégicos y específicos definidos en la ficha N° 66 bis 2, del Plan correspondiente a esta subvención que son los siguientes:

- **Objetivos estratégicos:** la promoción de las actividades deportivas

- **Objetivos específicos:** Fomentar la práctica del Rugby, consolidar su presencia en el ámbito local y generar un impacto positivo tanto en la práctica deportiva como en la formación y la integración

Por cuanto antecede, las dos partes acuerdan suscribir el presente Convenio, el cual se registrará por las siguientes

CLÁUSULAS

1º.- Objeto de la subvención

El objeto de la subvención es hacer frente a los gastos necesarios del Rugby, en el periodo del 1 de enero de 2026 al 31 de diciembre del 2026, para la práctica del Rugby del equipo del Atlético de San Sebastián entre cuyas actividades previstas está .

Se trata de una subvención directa de las previstas en el artículo 22.2.a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS, en adelante), debido a la naturaleza del evento y a que la disposición dineraria está dotada nominativamente en el Presupuesto 2026 del PMD.

Las actividades previstas objeto de la subvención son las siguientes:

- Entrenamientos de Clubes de rugby
- Actividades de formación en el rugby con ikastolas y centros escolares
- Actividades de formación en el rugby con universidades
- Torneo Universitario de la UPV.
- Actividades de deporte escolar.
- Entrenamientos de Federaciones

El club cederá el campo de rugby para el desarrollo de dichas actividades en las siguientes franjas horarias :

- Lunes: de 17:00 a 19:00 horas.
- Miércoles: de 17:00 a 19:00 horas.
- Viernes: de 20:00 a 21:30 horas



2.- Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua

Dirulaguntza **50.000,00 eurokoa** da, eta egotziko zaio KUPen **1.1920.211.481.21/2026** kontu sailari.

3.- Pertsona onuradunak

ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN erakundea pertsona onuraduna izango da, huraxe baita dirulaguntza hau emateko oinarritzat hartu den jarduera bideratuko duen pertsona. Halako gisa deklaratu du erakundeak, DLOren 13. artikulua araberak, dirulaguntzaren pertsona onuradunaren izaera lortzeko.

Halako gisa, erakunde onuradunak egiaztatu beharko du, dirulaguntza ematen den unean nahiz ordainketak egiten direnean, zerga obligazioak (Foru Ogasuna eta Udal Diru-bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela, eta premiamendu bidean ez duela inolako zenbatekorik ordaindu gabe itzultze prozeduren ondorioz. Egiaztatu du, halaber, ez dagoela premiamendu bidean inolako kobratze prozeduraren barruan Udalarekin edo haren erakundeekin eginiko zorreetatik. Baldintza hauek aurreantzean egin behar diren ordainketak egiterako unean ere akreditatu beharko dira.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikulua araberak, erakundeak honako hauek egiaztatu ditu:

- Diruz lagundutako jarduera ez dela diskriminatzailea sexuagatik edo 3.1 artikuluan jasotako diskriminazio anitzeko faktoreengatik.

- Ez duela zehapen administratibo edo penalik sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45.5 artikulua aplikatuz, ez dagoela behartuta Berdintasun Plana egin eta ezartzera.

30.000 euro baino gehiagoko dirulaguntza denez, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak, zeinaren bidez merkataritza eragiketetan berankortasunaren

2º.- Cuantía y crédito presupuestario

La cuantía de la subvención económica asciende a **50.000,00 euros** y se imputará a la partida **1.1920.211.481.21/2026** del PMD.

3º.- Personas beneficiarias

La entidad ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN reúne la consideración de persona beneficiaria en tanto persona que realizará la actividad que fundamenta la concesión de la presente subvención. Como tal, la entidad declara que no está incurso en ninguna de las prohibiciones contempladas en el artículo 13 de la LGS para obtener la condición de beneficiaria de la subvención.

En concreto la entidad organizadora deberá acreditar tanto en el momento de la concesión como en los correspondientes plazos de pago que se encuentra al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Recaudación Municipal) y con la Seguridad Social y que no tiene en vía de apremio cantidades pendientes por procedimientos de reintegro. Acreditará asimismo que no se halla incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento o sus entidades. Estas circunstancias deberán igualmente acreditarse en el momento de efectuar los pagos sucesivos.

En virtud del artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, la entidad acredita:

- que la actividad subvencionada no es discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el artículo 3.1.

- que no se encuentra sancionada ni administrativa ni penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres.

- que en aplicación del artículo 45.5 de la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad efectiva de mujeres y hombres, no está obligada a la elaboración e implementación del Plan de Igualdad.

Al tratarse de una subvención de más de 30.000 euros la Ley 3/2004 de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la

aurkako neurriak ezartzen diren, hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epe batzuk ezartzen ditu. Halere, irabazi-asmorik gabeko erakundeek ez daude behartuta lege hori betetzera. Zentzu horretan, erakundeak ardurapeko adierazpena aurkeztu du eta ziurtatu irabazi asmorik gabeko erakunde gisa erregistratuta dagoela; ondorioz ez dago lege hori betetzeari lotuta.

4.- Aplikatu beharreko erregimen juridikoa

Hitzarmen honek xedaturikoaz gainera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, dekretu horrek onartzen baitu aipaturiko Lege horren Araudia, aurreikusitakoa beteko du dirulaguntza honek, publikotasun eta lehia printzipioei dagokienean izan ezik, eta administrazio zuzenbideko gainerako arauak xedaturikoa eta, horrelakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak xedaturikoa beteko du halaber.

Halaber, diruz lagundutako proiektua edo/eta jarduera Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria sexistarik gabeko bizimodurako 1/2023 Dekretu Legegilearen (martxoaren 16koa) 23.2 artikulua esparruan gauzatu da. Dekretu Legegile horrek xedatzen duenez, Euskal Administrazio Publikoek ezin izango diete inolako laguntzarik eman sexuan oinarrituta edo 3.1 artikuluan adierazitako diskriminazio anizkoitzeko inguruabarretan oinarrituta diskriminatzen duten jardueri, ez eta sexuan oinarrituta diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoei eta juridikoei ere, dagokion zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, eta, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

Halaber, haintzat hartu beharko dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, eta Donostiako Udalaren V. Berdintasun Plana.

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik

morosidad en las operaciones comerciales, establece unos periodos medios de pago a proveedores. No obstante, las entidades sin ánimo de lucro no están obligadas al cumplimiento de la ley de morosidad. En este sentido, la entidad ha presentado declaración responsable en la que certifica que está registrada como entidad sin ánimo de lucro, por lo que no está sujeta al cumplimiento de la ley.

4º.- Régimen jurídico aplicable

Esta subvención se regirá, además de por lo dispuesto en el presente Dictamen de concesión, por lo previsto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, y en el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la citada Ley, salvo en lo que afecte a los principios de publicidad y concurrencia, así como por lo establecido en las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, por lo dispuesto en las normas de derecho privado.

Asimismo, la ejecución del proyecto y/o actividad subvencionada se desarrollará en el marco de del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, que establece en el artículo 23.2 que, las Administraciones Públicas Vascas no podrán conceder ningún tipo de ayuda para las actividades que sean discriminatorias por razón de sexo o por incurrir en las circunstancias de discriminación múltiple señaladas en el artículo 3.1, así como las personas físicas y jurídicas que hayan sido sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo o por incumplimiento de la normativa en materia de igualdad de mujeres y hombres, durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción. Asimismo, quedan excluidas de la concesión de ayudas y subvenciones las empresas que, debiendo tener un plan de igualdad vigente conforme a la normativa estatal, carezcan del mismo y aquellas empresas de más de 50 personas trabajadoras que no acrediten haber establecido medidas para prevenir o combatir el acoso sexual y el acoso por razón de sexo en los términos establecidos por la legislación estatal en materia de igualdad de mujeres y hombres.

Asimismo serán de aplicación la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres y el V Plan de Igualdad del Ayuntamiento de Donostia.

También será de aplicación la Ley Orgánica



babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa (LOPVI, aurrerantzean) ere aplikatu beharko da, erakunde onuradunak adingabeekin kirol- edo aisialdi-jarduerak egin ohi baditu

5.- Bateragarritasuna edo bateraezintasuna xede bera duten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin

Edozein Administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazionalez, Europar Batasunekoek edo nazioarteko erakundeek xede berarekin ematen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin bateratu ahal izango da dirulaguntza hau, KUPak berak dituen beste laguntza eta finantzaketa iturriekin izan ezik. Hala ere, DLOaren 19.3 artikulua araberak emaniko dirulaguntzaren zenbatekoak ez du, inolaz ere, gaituzteko, bakarrik nahiz beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin elkarturik, diruz lagundutako jardueraren kostua.

6.- Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta moduak. Berme erregimena

Emandako dirulaguntzaren %80 hitzarmen hau sinatzen den unean ordaindu ahal izango da. Gainerako %20, jasotako dirulaguntzaren justifikazioa onartzen denetik gehienez ere bi hilabeteko epean ordainduko da.

Pertsona onuradunari ez zaio inolako bermerik eskatuko erakunde onuradunaren izaera zein den ikusirik, eta ez delako ikusten hitzarmen honen araberak bere gain hartutako obligazioak ez betetzeko arriskurik.

7.- Jasotako funtsak erabiltzea / aplikatzea

Dirulaguntza honek xede dituen jarduerak 2026ko urtarrilaren 1etik, 2026ko abenduaren 31a arte gauzatuko dira.

8.- Jasotako dirulaguntza justifikatzeko epea eta modua

Jarduera bukatzen denetik edo funtsak aplikatzen direnetik hasi eta gehienez ere 3 hilabeteko epean aurkeztu beharko da justifikazioa.

8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia (LOPVI, en adelante), en la medida en que la entidad beneficiaria realice actividades deportivas o de ocio con personas menores de edad de forma habitual.

5º.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad

La presente subvención será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, salvo con las ayudas y/o financiación proveniente del propio PMD. No obstante, conforme al artículo 19.3 LGS, el importe de la subvención concedida en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

6º.- Plazos y modos de pago de la subvención. Régimen de garantías

El 80% de la subvención concedida podrá abonarse en el momento de la firma del presente convenio. El 20% restante se abonará en el plazo máximo de dos meses desde la aceptación de la justificación de la subvención recibida.

No será exigible la prestación de garantía por parte de la persona beneficiaria en atención a la naturaleza de la entidad beneficiaria y por cuanto no se aprecia riesgo de que incumpla las obligaciones asumidas en virtud de este convenio.

7º.- Plazo de ejecución / aplicación de fondos percibidos

Las actividades objeto de la presente subvención se desarrollarán del 1 de enero de 2026 al 31 de diciembre de 2026.

8º.- Plazo y forma de justificación de la subvención percibida

La presentación de la correspondiente justificación de gastos no deberá superar el plazo de 3 meses a contar desde la finalización del plazo fijado para la realización de la actividad o aplicación de los fondos.

Jasotako dirulaguntzaren %100 justifikatu beharko da jarduera bukatutakoan, eta ondoko egiaztagiri hauek aurkeztu beharko dira horretarako:

1.- Diruz lagundutako jardueraren memoria, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko, aurrera eramaniko jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Memoria horrek honako hauek jasoko ditu gutxienez:

- Programa edo proiektuaren izena.
- dirulaguntza zertarako eman zen.
- Egindako jarduerak, proposatutako helburuen eta lortutako emaitzen deskribapena.
- dirulaguntzaren hartzaileen datuak sexuaren arabera bereiziak.
- Diruz lagundutako proiektu edo jardueren genero-eragina aztertze txostena.
- Lan-eremuan sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio-neurriak aurkeztea, bai eta adingabeen aurkako indarkeria prebenitzeko datorren denboraldirako hartu beharreko neurriak (protokoloak) ere (LOPIVI).
- Proiektuaren garapenean eginiko aldaketak.
- Euskararen erabileraren betetze maila.
- Argitaratutako programen, iragarki-kartelen, argazkien eta gainerako material grafiko, idatzi edo soinudunaren aleak.
- Konklusioak

2.- Memoria ekonomikoa, aurrera eramaniko jardueren kostua egiaztatzeko eta justifikazio-kontuak gutxienez ondorengoak jasoko ditu:

- Diru sarrera eta gastuen eta hasierako aurrekontuarekiko izandako desbideratzeen balantzea laburbilduta.

Una vez finalizado el proyecto será necesario justificar el 100% de la subvención concedida mediante la presentación de la cuenta justificativa comprensiva de:

1.- Memoria de actuación de la actividad subvencionada justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. El contenido de la Memoria será, al menos, el siguiente:

- Denominación del programa o proyecto.
- Finalidad para la que se otorgó la subvención.
- Actuaciones realizadas, descripción de los objetivos propuestos y de los resultados obtenidos.
- Datos segregados por sexo de los destinatarios de la subvención.
- Informe de análisis del impacto de género de los proyectos o actividades subvencionadas.
- Presentación de las medidas de prevención frente al acoso sexual y por razón de sexo en el ámbito laboral, así como las medidas (protocolos) a adoptar para la próxima temporada para la prevención de la violencia hacia menores (LOPIVI).
- Modificaciones realizadas en el desarrollo del proyecto.
- Grado de cumplimiento del uso del euskera.
- Ejemplares de los programas, carteles anunciadores, fotografías y demás material gráfico, escrito o sonoro publicados.
- Conclusiones.

2.- Memoria económica justificativa del coste de las actividades realizadas e incorporará además una memoria económica abreviada, la cual, como mínimo contendrá:

- Balance resumido de ingresos y gastos y desviaciones acaecidas respecto al presupuesto inicial.

- Eginiko gastuen zerrenda sailkatua, kontzeptuen arabera ordenatua eta guztizkoa azalduta, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, egin den eguna eta, hala behar badu, ordaintze eguna zehaztuta.
- Zerrenda sailkatuan jasotako kostu orokorrak edo/eta zeharkakoak banatzeko irizpideen adierazpena, hala behar badu.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera edo dirulaguntzen zerrenda xehea, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
- Hiru aurrekontu DLOren 31.3 artikulua aplikatzen bada.
- Aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna, hala behar badu.

3.- Udalak emango dituen ereduaren arabera aurkeztuko da aurreko ataletan adierazitako dokumentazioa.

9.- Dirulaguntzaren justifikazio egokia eta finantza kontrola ziurtatzeko eskaturiko kontabilitate liburu eta erregistroak (espezifikoa ala ez)

Jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu erakunde onuradunak, kontabilitate liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako dokumentuak, behar bezala ikuskatuak aplikatu beharreko merkataritzako eta arloko legeriak eskatutako moduan, eta egiaztagirak gordeko ditu, lau urtetan egiaztatu eta kontrolatu baitaitezke horiek guztiak.

Udal Administrazioako organoek eskatutako dokumentazio guztia aurkezteko eta beharreko laguntza emateko betebeharra du halaber, eta araudi komunitarioaren arabera, finantza kontrolerako egitekoak dituzten beste organoei ere emango die dokumentazio hori.

10.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatuak egonda, beharrezkoak direnak eta proiektuaren edo jardueraren izaerari eta garapen arruntari inolako zalantzarik gabe erantzuten dietenak. Inolaz ere ezingo da diruz lagundu daitezkeen gastuaren eskuratzeko kostua merkatuko balioa baino handiagoa izan.

Hitzarmen honen Zortzigarren klausulak aipaturiko

- Relación clasificada de los gastos realizados ordenada y totalizada por conceptos, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago.
- Indicación, en su caso, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación clasificada.
- Relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y procedencia.
- Tres presupuestos en el caso de aplicación del artículo 31.3 de la LGS.
- En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como los intereses derivados de los mismos.

3.- La documentación indicada en los apartados anteriores se presentará conforme a los modelos que se facilitarán.

9º.- Libros y registros contables (específicos o no) exigidos para garantizar la adecuada justificación de la subvención y control financiero

La entidad organizadora deberá contabilizar todos los gastos e ingresos de la actividad, disponer de libros contables, registros diligenciados y demás documentos debidamente auditados en los términos exigidos por la legislación mercantil y sectorial que le sea de aplicación, conservar los documentos justificativos, en tanto puedan ser objeto de comprobación y control durante cuatro años.

Asimismo estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración municipal, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control financiero.

10º.- Gastos subvencionables

Se considerarán gastos subvencionables aquellos que siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, son necesarios y responden de manera indubitativa a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad. En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Se considerará gasto realizado el que ha sido



frogatze epea amaitu aurretik egiaz ordaindu dena hartuko da egindako gastutzat.

Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000€tik gorakoa bada, gehi BEZa, obretako kontratuen, obra-emakiden edo zerbitzu-emakiden kasuan, edo 15.000€tik gorakoa bada, gehi BEZa, zerbitzuen eta horniduren kasuan, hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez erakunde onuradunak, zerbitzua eskaintzeko edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik; diruz lagun daitezkeen gastuek ezaugarri bereziak izateagatik, merkaturan hornitzeko edo zerbitzua emateko erakunde kopuru nahikoa ez dagoenean, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin denean izan ezik.

Honako gastu hauek ez dira, inolaz ere, diruz lagunduko:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta administrazio zigorrak nahiz zigor penalak.
- c) Prozedura judizialen gastuak.
- d) Zergak diruz lagun daitezkeen gastuak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituenen.

Konturako ordainketei dagokienez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudia aplikatu behar da, hau da, 3/2014 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzkoa, eta 33/2014 Foru Dekretua, urriaren 14koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duena eta zenbait zerga-betebehar formal garatzen dituen Erregelamendua aldatzen duena. Beraz, ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko PFEZaren edo haren ordezkari araudiaren atxikipenik gabe egindako gastuak.

11.- Azpikontratatzeko baldintzak

Diruz lagundutako jarduera garatzeko hirugarren bat azpikontratatu ahal izango da DLOaren 29. artikuluan eta DOAaren 68. artikuluan aurreikusitako baldintzak eta debekuak beteaz.

12.- Emandako dirulaguntzaren zabalkundea

Pertsona onuradunak erakundearen beraren edo KUPekin antolatutako jardueren idatzizko, ahozko,

efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del periodo de justificación al que se refiere el apartado 8º del presente convenio.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere la cuantía de 40.000€ más IVA cuando se trate de contratos de obras, de concesiones de obras y concesiones de servicios, o 15.000 euros cuando se trate de contratos de servicios y suministros, la entidad organizadora deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la asunción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

En ningún caso se considerarán gastos subvencionables:

- a) Los intereses deudores de las cuentas bancarias.
- b) Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- c) Los gastos de procedimientos judiciales.
- d) Los tributos son gasto subvencionable cuando el beneficiario de la subvención los abona efectivamente.

En cuanto a los pagos a cuenta es de aplicación la normativa del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, es decir, Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa y el Decreto Foral 33/2014, de 14 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y se modifica el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales. Por tanto, no serán considerados gastos subvencionables los ejecutados sin la retención correspondiente del IRPF o normativa que la sustituya.

11º.- Condiciones de subcontratación

La actividad subvencionada podrá ser objeto de subcontratación con terceros por el importe total de la subvención concedida de acuerdo con los requisitos y prohibiciones previstos en el art. 29 de la LGS y en el art. 68 del RGS.

12º.- Difusión de la subvención concedida

La persona beneficiaria hará constar en toda la publicidad escrita, hablada, gráfica o audiovisual



ikus-entzunezko eta irudizko publizitatean agerraraziko du KUParen laguntza jaso duela, Donostia Kirolaren eta Donostiako Udalaren logotipoak jarritz, beste babesle eta/edo laguntzaileen dimentsio berekin.

Pertsona onuradunak erakunde weba badauka edo/eta jardueraren webarik badauka, bertan toki egokian Donostia-Kirolaren logoa azaldu beharko du eta www.donostiakirola.eus web orrira lotura izan beharko du.

Kirol jardueren kasuan, toki egokian jarri beharko ditu Donostia Kirolaren publizitate eusgarriak (instalazio ireki edo/eta itxietan antolatzen badira ere). Publizitate euskarri horiek KUPari eskatu beharko dizkio, eta KUPak erabakiko du zein diren euskarri egokienak jardueraren berezitasunak kontuan hartuta.

Idatziz jakinarazi beharko dute ekitaldiaren eguna, ordutegia eta non antolatzen den jarduera aurkezteko prentsurrekoa, eta hara joateko dagozkion gonbidapenak bidali beharko ditu. Gainera, idatziz jakinarazi beharko du non eta noiz antolatua dagoen jarduerak, bidali beharko ditu dagozkion gonbidapen edo akreditazio eta zehaztu zer ordutan banatuko diren trofeoak.

Donostiako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Arauen 25. artikuluekin bat etorritik, diruz lagundutako jarduera ezagutzera emateko edo jardueraren lagungarri gisa egiten diren euskarri guztiak, ahoz zein idatziz (argitalpen, idatzi, iragarki, ohar, propaganda, bozgorailu...), euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko dira. Era berean, jendaurreko ekitaldietan bozgorailu bidez ematen diren mezuak ere euskaraz edo lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaniaz emango dira.

Proiektua edo jarduera gauzatzean sortzen diren agiri, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista erabili beharko da, emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak eragiten dituen edozein irudi saihestuz, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero-rol eta identitateen aniztasunaren balioak dituen irudia

relacionada con la entidad beneficiaria y, en su caso, con las actividades deportivas organizadas la colaboración de PMD, insertando el logotipo de *Donostia Kirola* y el del Ayuntamiento de San Sebastián en lugar preferente y con las mismas dimensiones que el resto de colaboraciones y patrocinios.

Si la persona beneficiaria dispone de página web corporativa y/o específica para alguna de las actividades deportivas organizadas, deberá poner en un lugar preferente de las mismas el logotipo de *Donostia Kirola* con un enlace a la página web www.donostiakirola.eus.

En el caso de la organización de actividades deportivas, la persona beneficiaria deberá colocar en un lugar preferente (ya se celebre en una instalación deportiva o al aire libre) elementos publicitarios que reflejen la colaboración de *Donostia Kirola*. Estos elementos publicitarios deberán ser solicitados al PMD, quien decidirá qué elementos son los más adecuados para instalar en función de las características de la actividad deportiva.

Además, deberá comunicar, por escrito, el día, hora y lugar de celebración de la rueda de prensa de presentación del acto, realizando así mismo la invitación oportuna para participar en el mismo. De la misma manera, deberá comunicar por escrito, los horarios de celebración del acontecimiento, enviando las correspondientes acreditaciones o invitaciones para la asistencia al mismo, así como el horario de reparto de trofeos.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 25 de las Normas para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento y Municipio de San Sebastián, todos los elementos utilizados, oralmente o por escrito (publicaciones, anuncios, escritos, avisos, propaganda, megafonía...), para dar a conocer la actividad subvencionada o para completar la actividad, se realizarán en euskera o en euskera y castellano. Asimismo, los mensajes emitidos en los actos públicos a través de altavoces se expresarán en euskera o primeramente en euskera y luego en castellano.

En toda la documentación, publicidad, imagen o material que se genere con motivo de la ejecución del proyecto o actividad, se deberá emplear un uso inclusivo y no sexista del lenguaje y las imágenes, evitando cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas, y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de

sustatu beharko da.

13.- Ez betetzea eta itzulketak. Jarritako baldintzen ez betetzeak izan daitezkeenak mailakatzeko irizpideak

Jasotako zenbateko guztia edo zati bat itzuli beharko da eta beharreko berandutze interesak eskatuko dira, dirulaguntza ordaintzen den unetik hasi eta itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den eguna arte, DLOaren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Proporzionaltasun printzipioa kontuan harturik, honako irizpide hauen arabera mailakatuko dira ez betetzeak:

- Erakunde onuraduna bete beharreko ia guztia betetzetik hurbil dagoenean eta erakunde onuradun horrek, inolako zalantzarik gabe, hartutako konpromisoak betetzeko asmoa duela egiaztatzen duenean, diruz lagundutako jardueraren ez betetzearen ehunekoaren araberrako dirulaguntzaren ehunekoak finkatuko du itzuli beharreko zenbatekoa, dirulaguntza eman duen organoak beharreko espedientea hasi ondoren.
- KUPeko edo udal zerbitzuek finantza egiaztapen edo kontrol bat egitean ikusten badute eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ez direla ordaindu, dirulaguntza kobratu ondoren, hartzekodunek kopuru horiek eska ditzaketenean, dirulaguntza itzultzeko eskatuko da proporzionaltasun printzipioa aplikatuta. Horretarako, diruz lagundutako guztizko gastuekiko ordaindu ez diren gastuen heinean itzuliko da dirulaguntza.
- Diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak elkartzen badira, eta gastu aurrekontu jakin bat erreferentziatzen hartuta ematen bada dirulaguntza eta justifikaturiko gastua aurrekontuan jasotakoa baino txikiagoa bada, itzuli egingo da diruz lagundutako jardueraren kostuaren gaineko soberakin hori, eta dagozkion berandutze interesak eskatuko dira gainera.

roles e identidades de género.

13º.- Incumplimiento y reintegros. Criterios de graduación de los posibles incumplimientos de las condiciones impuestas

Procederá el reintegro total o parcial de las cantidades percibidas y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la procedencia del reintegro en los casos previstos en el art. 37 de la LGS.

En atención al principio de proporcionalidad, se graduarán los incumplimientos en base a los siguientes criterios:

- Cuando el cumplimiento por la entidad organizadora se aproxime de modo significativo al cumplimiento total y se acredite por ésta es una actuación inequívocamente tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar vendrá determinada por el tanto porcentual de la subvención equivalente al tanto porcentual de incumplimiento de la actividad subvencionada que se determine, previa incoación del correspondiente expediente, por el órgano concedente.
- Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios del PMD o Ayuntamiento se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.
- En los supuestos de concurrencia de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que superen el coste de la actividad subvencionada, así como cuando se concede la subvención tomando como referencia un presupuesto de gasto y el gasto imputable justificado es inferior al presupuestado, procederá el reintegro del exceso sobre el coste de la actividad subvencionada, así como la exigencia del interés de demora correspondiente.

14.- Dirulaguntza norbere ekimenez itzultzea

Eman duen organoak itzultzeko eskaera egin aurretik, dirulaguntza bere borondatez itzuli ahal izango du pertsona onuradunak. Diru sarrera egin ondoren, pertsona onuradunak diru sarrera horren egiaztagiriaren kopia emango dio dirulaguntza eman dion organoari. Idatzi bat ere aurkeztuko dio kopia horrekin batera, bertan adierazita zein proiekturako eman zen dirulaguntza, erakunde onuradunaren izena, diru sarreraren zenbatekoa eta diru sarrera hori egiteko arrazoia. Norbere borondatez dirua itzultzeak ez du salbuetsiko berandutze interesen kitapena egitetik. Dirulaguntza ordaindu zen egunetik hasi eta erakunde onuradunak egiaz dirua itzuli duen arteko denbora hartuko da kontuan interes horiek kalkulatzeko.

15.- Arau hausteak eta zigorrak

DLOaren 56. artikuluan eta hurrengoetan eta haren garapenerako xedapenetan xedaturikoa beteko da alor honetan.

Administrazio bideari amaiera emango diote zigorrak jartzeko erabakiek.

16.- Hitzarmenaren iraunaldia

Hitzarmen hau sinatzen den egunean hasiko da indarrean eta indarrean iraungo du beronen arabera bideratu den dirulaguntzaren kudeaketatik etorritako jarduera eta prozedura guztiak amaitzen ez diren bitartean.

17.- Auzia ekar dezaketen kontuak

Hitzarmen honetatik etor litezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikziopean geratuko dira izaera juridiko administratiboa izateagatik.

Adostasunaren erakusgarri, aldeek Hitzarmen hau formalizatu eta sinatzen dute bi kopian, hasieran adierazitako lekuan eta egunean.

14º.- Devolución de subvención por propia iniciativa

Antes de que se efectúe la petición de reintegro por parte del órgano concedente se podrá realizar por la persona beneficiaria el reintegro con carácter voluntario. Una vez realizado el ingreso, la persona beneficiaria organizadora deberá enviar al órgano concedente de la subvención una copia del justificante del ingreso acompañado de un escrito en el que se indique el proyecto para el que se concede la ayuda, el nombre de la entidad organizadora, el importe y el motivo por el que se realizó el ingreso. El reintegro voluntario no exime de la liquidación de intereses de demora que se calcularán desde la fecha de pago de la subvención hasta el momento en que se produjo la devolución efectiva por parte de la entidad organizadora.

15º.- Infracciones y sanciones

En esta materia se estará a lo dispuesto en los arts. 56 y ss de la LGS y sus disposiciones de desarrollo.

Los acuerdos de imposición de sanciones pondrán fin a la vía administrativa.

16º.- Vigencia del Convenio

El presente Convenio iniciará su vigencia a la fecha de su firma y permanecerá vigente hasta la finalización de todas las actuaciones y procedimientos que deriven de la gestión de la subvención que a través de él se articula.

17º.- Cuestiones litigiosas

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente Convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

En prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente Convenio en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

KUDEATZAILEA / GERENTE
KUP / PMD

Sin.:/Fdo.: David Feljoo Rogel



LEHENDAKARIA/PRESIDENTE
ATLÉTICO SAN SEBASTIÁN

19/05/2026
Sin.:/Fdo.: Javier Mendiburu Gomez

